

ALEGIAKO FESTAK 2017: KARTEL ETA LOGO LEHIAKETA

1. Lehiaketa honetan 12 urte gorako edozein alegiarrek har dezake parte.
2. Kartela festetako egitarauaren azala eta logoa egiteko erabiliko da.
3. Tamainak honako hauek izango dira:
 - Kartela A3ko tamaina
 - Logoa 21X21 tamaina
4. Teknika librea izango da, hau da, eskuz egindako marrazkiak, akuarelaz egindakoak etab. Formatu digitalean ere aurkez daitezke. Azken kasu honetan gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko dute, eta JPG formatuan aurkeztuko dira.
5. Lanek derrigorrez testu hau izan beharko dute: Alegiako festak 2017.
6. Jai horren ezugarriren bat, irudiren bat edo lemaren bat jaso eta adierazi beharko da.
7. Lanak koloretan aurkeztuko dira (logoaren kasuan, gehienez, lau koloretan) originalak, eta beste inon ez aurkeztutakoak.
8. Pertsona bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.
9. Lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean egilearen datuak sartuko dira (Izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina). Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzeko aldean, berriz, egilearen goitizena eta kartelarako edo logorako aurkezten den zehaztu beharko da.
10. Lanak 2017ko maiatzaren 19a baino lehen, Alegiako Inaxio Begiristain Kultur Etxera eraman behar dira.
11. Herritarren bozketaren bidez aukeratuko da kartelik onena.
12. Bi sari egongo dira:
 - Kartelaren egilearentzat bi lagunentzako afari bat Eizmendi tabernan eta 100 euro
 - Logoaren egilearentzat bi lagunentzako afari bat Eizmendi tabernan eta 100 euro
13. Saritzen diren lanak Udalaren esku geldituko dira eta jaietako egitarauaren azalean bat eta bestea festetako kamixetetan agertuko dira.
14. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat antolatuko ahal izango du Jai batzordeak, eta hau amaitu ondoren 15 eguneko epean saririk eskuratu ez duten lanak jaso ahal izango dituzte beren jabeek. Epe hori igarotakoan lanak jaso ez badira, egileek uko egin dietela ulertuko da, eta artistek ez dute erreklamaziorik egin edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
15. Alegiako udalak berarentzat gordeko ditu lanak editatzeko eta erabiltzeko eskubideak.
16. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.
17. Informazio telefonoa: 943 65 46 98